

Oharrak

Notas

Remarques

Notes

Karmelo Etxenagusia, nire gomuten olatu irakinean¹

ZUGAZAGA MARTIKORENA, Lontzo

Abadea, irakaslea eta zuzentzailea

Bilboko Eleizbarrutiko Euskara Zerbitzuko zuzendaria

lzugazaga@bizkeliza.org

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2026i71.334>

¹ Hizkuntza Kalitatearen Behatokia Zerbitzuak (HIZBEA) ez du ohar hau zuzendu.

1. Karmelozko hartu-emona Seminarioan eta Gotzaindegian
2. Karmeloren izaera
3. Karmelo eta bidaiak
4. Karmeloren euskera irakasteko metodologia
5. Karmelo eta *Lorategiak*
6. Liturgia barria euskeratzen
7. Zorion-agurrak Karmelori
8. Gotzain laguntzaile
9. Agurra gotzaindegian (Kurian)
10. Karmelori azken agurra Begoñako Basilikan

Gure Karmelo hil egin jaku. Maite izan dauan Aitak bere etxera eroan deusku. Tristuraren eta minduraren eraginpean, adiskide maitatuaren galerak itolarria nire muinetaraino sartzen deustala, asaskatu egin gura dot, letretan garanduz eta irauliz sakonean matazatu jatan korapilo itxia.

1. Karmelozko hartu-emona Seminarioan eta Gotzaindegian

Hartu-emon luzea, zabala eta sakona izan dot Karmeloz. Derioko Seminarioan, 1955ean, alkar ezagutu genduan. Bera abade ordenatu barria zan eta ni Seminarioa sartzeko asmotan, hamabost eguneko egotaldia eta ikastaldia egitera joana. Ez dakit zelan edo zergaitik izan zan, baina Seminario aurreko pinudian jolasean genbiltzala, ezpata dantzari nekiela esan neutsen lagunei. Eta, jarraian, zortzikoa dantzatu nengiala eskatu eustan han gurekin ebilen Karmeloz. *Aita San Migel* neuk abestuz dantzatu neban. Horixe izan zan, seguru asko, Derioko Seminarioan egindako lehenengo zortzikoa. Gero, beste batzuk ere baekiela zabaldu zan, eta han agertu ziran Zarrabe, Gabika, Arriaga eta Arriola ere. Behingoan dantzari eragin euskuen, kalekoz, dantzari janzki gabe izan arren.

Gogoan eban Karmeloz gertaera hori:

Derioko Seminario Txikirako dei egin eusten, han hezitzaile ta irakasle izateko. Udearen erdian 15 eguneko ikastaro labur bat izan genduan Derion, hurrengo kurtsoan Seminarioa sartu behar eben mutikoak ondo aukeratu ahal izateko. Hainbat umek eskatu eban orduan Seminarioan sartzea. Ehunetik gora izango ziran urte haretan. [...]

Mutikoen artean dantzariak baegozala jakin genduan, hamabost eguneko ikastaro honetan dantzari-taldetxu bat eratu genduan, eta eguneroko jantziekin saio polita eskaini euskuen: dantzari dantza eta aureskua. Dantzari artean, onenarikoa Gamizko mutiko zuhur bat, gero euskaltzale handi, euskal lanetan lagun eta adiskide on izango neban Lontzo Zugazaga (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 63).

Hamabost eguneko ikastaro hori egin genduan ehun eta hogeita hamaika mutikoetatik, laurogeita hamasei hartu ginduezan lehenengo urterako.

Irakasle eta hezitzaile zan Karmelo abade gaztea. Onbera eta bihotz handikoa zan, eta gogor egiten jakon inori haserre egitea. Halan bere, «prefektoa» zan ezkeror, gure bihurrikerien aurrean, gure jokabideak zuzentzeko ardurea eukanez, noizbait iluntzen eban bekokia eta botaten euskun bere agirakaldia. Baina ondotxo gogoan dot zelan jartzen zan gorri gorri bere aurpegia, agiraka egitean berak sentitzen eban saminaren erakusgarri.

Seminario Nagusian, Filosofiako ikasle izan nintzan urteetan, barriro aurkitu nintzan Karmeloz. Seminario Txikian ez Karmeloz ez beste inork ez euskun euskera eskolarik emon. Filosofian, ostera, euskera irakasten zan. Karmelo izan zan gure irakaslea. Ez euskun gramatikarik, deklinabiderik ez aditzik irakatsi. Zaletu egin nahi ginduzan, gu euskaltzale izatea, guk euskerrea maitatzea gura eban. Testu ederrak irakurtzera eta gozatzera bultzatu ginduzan, kantu zahar eta barriak ezagutzera bideratu, gure literatura estimatzera, gozatzera eta maitatzera. Horrezaz gainera, bere eraginez hasi ginduzan bildurra alboratu eta euskeraz idazten.

Filosofiako lehenengo urte bietan berarekin egin genduan bidea kontuan hartuz, pozik eta esker onez autortu behar dot, irakasbide benetan egokia eta emonkorra izan zala guri eskaini euskuna. Filosofiako hirugarren kurtsoan nik hebreera ikasi behar izan neban; halan bere, euskerako eskoletara ere joaten jarraitu neban, gustokoak nebazan eta. Idazlan batzuren zuzenketetan ikusi ahal izan dodanez, aldi honetan eskola banakaren bat Mikel Zaratek emon euskun, Karmeloren faltara, nire idazlan batzuetan agertzen diran zuzenketak adierazten dabenez.

Urte horreetan akuilu eta eragile izan genduan Karmelo. Sariketarak erazten ebazan, guk, irakurriaz gainera, idatzi ere egin gengian. Esker onenez eta maitasun handiz gordetzen dodaz, gaur ere, sariketa horreetan irabazitako Aita S. Onaindiaren *Milla euskal-olerki eder* eta N. Ormaetxea *Orixeren Euskaldunak*, sari modura Karmeloz emonak.

Idazten genduzan lantxoetan, notea jarriaz gainera, lerro batzuk idazten euskuzan beti. Ohartxo horreek lagungarri on izaten ziran zuzendu behar genduana zuzentzeko eta, batez ere, idazten jarraitu gengian adore emoteko. Hona hemen, beste askoren artean, adibide batzuk: (Karmeloz orduan idatzi eustazan eran idatzita ipinten dodaz)

Ederto. Onela lan egin ezkeru, gorengo mallara elduko zara. Ez epeldu, ta ekin beti aurrera... Txaloak zuri, langille adoretzu orri.

Nundik euskeratu dozu au? Lan ederra egin dozu; zuretzako Euskariak eztauka izkuturik. Behar bada, garbiegixua zara; baña lenengotan obe dozu bide oneri jarraitu, berba barriak eta ikasteko...

Zorionik beroenak! Zuk dakazu euskerarako jaiotasuna! Ekin eta jarrai, geroago eta gorago!

Zatitxu batzuk illuntxu gelditzen jatzuz, garbikeriz-edo... Alan da guzti be, oraindino obe dozu garbizalea izan, berba asko eta asko ikasteko. Gerokoan, asko ikasitakoan, berez joko dozu erdiko bidera.

Filosofian ikasten nengoala hasi nintzan neurtitzak ere idazten. Teologiako ikasle zan Urdulizko seme Gotzon Garitaonaindiak bultzatu ninduan. Gogoz eta bihotzez goitik beherako euskaldun sutsua zan eta berak erein eban niregan, gozotasun eraginkorrez, herriaganako maitasun sakona eta neurtitzak idazteko gogoia. Orduan hasi nintzan bertso batzuk idazten, zaleztasun handiz baina trebetasun urriz oraindik. Nire gehiegizko ausardiaren aurrean ere, hara Karmeloren aholkua:

Eztiñot or nunbaiten argitaratzeko bestekoak direanik, baña txalogarria zara. Jarrai bide orri, asikeran gogorregia izan arren...

Eta nik jarraitu egin dot gaur arte, hoba ez! Ez naz sekula damutu eta hamaikatxo aldiz jaso izan dot harrezkeru Karmelorengandik merezi baino gehiagoko laudorioa eta esker ona, ospakizun askotarako bertsoak idatzi eta kantatu dodazanean.

Teologiara pasa ginanean ez genduan izan euskera ikasteko eskolarik, nahiz eta urte horreetan Karmeloren lehenengo Lorategiak argitaratu ziran eta. ni hurko-hurko izan nintzan multikopiazko argitaratze lanetan, nire ikaskide Pedro Ojanguren eta Angel Fernándezekin.

Abade egin barritan (1968), Derioko Seminarioan aurkitu nintzan barriro Karmelorekin, Seminario Txikirako irakasle eta hezitzaile izendatu nindueanean, hamahiru urte lehenago Karmelo egin eben antzera. Beste gai batzuren artean, euskerea ere irakasten neban. Eta urte berean, 1968an,

etorri zan Seminario Nagusiko abadegaien hezitzaile modura Ander Manterola ere. Eta behingoan hartu-emon barriak sortu ziran aurretiaz ere ezagun ginan lagunaren artean: Ander Manterola, Karmelo, Mikel Zarate eta neu.

Hor egosi zan, apurka-apurka, Julian Olazabalagaren eskariz eta Ander Manterolaren ausardiaz, Derioko Udako Ikastaroaren ametsa eta asmoa. Hor jaio zan urteetan eta urteetan hainbeste frutu eder emongo eban ibilbidea. Ideia eta intuizioa egitasmo bihurtzen joan zan, lau lagunon alkarrizketa luzeak tarteko. Horra hor abian 1970.eneko urtean Derioko Udako I Ikastaroa. Karmelo eta Mikel izan ziran irakasle eta nik baliabideak prestatzen lagundu neutsen. Hurrengo urtetik aurrera neuk ere irakasle lanetan jardun neban. Anderrek zuzendaritza lanari ekin eutsan hasieratik. Karmelo pozarren izan zan 20 urtean zehar Ikastaroko irakasle, harik eta Erromara joan arte (1989), berak atseginez aitatu izan dauan urte bedeinkatua, «zapatu urtea» han gozatu arte.

Handik bihurtzean, Begoñako parroko izendatu eben gure Karmelo. Eta hemen barriro hartu-emon estua izateko aukerea izan genduan. Izan ere, ni aurreko urtean Katekesirako gotzain ordezkari izendatu ninduan D. Luis Maria Larrea gotzainak. Holan, ia egunero, sarri be sarri, egoten ginan alkarrekin, beti eleiz-arazoak eta euskal arazoak aho-mihinean genduzala. Aldi honetan hasi nintzan, Karmelok eskatuta, astero euskeraz Mezea esaten Begoñan, Bizkai Irratiak zuzenean, berariaz gaixo, zahar eta ezinduentzat eskaintzen ebana, eta osasuntsu bizi ziran Bizkai herrietako hainbako jente askok ere gozatsu entzuten ebana.

Sasoi honetan Karmelok beti eskaintzen eustan zorion-agurra San Lorentzo egunez, bai bertatik Begoñatik, baita Europako beste herrialde batzuetatik ere, oporraldia izatean hor zehar ebilalako bere abade adiskideakaz. Hona hemen adibide bat:

«Badator, urtero lez, zure eguna, dana su, sargori eta izerdi;
(baina zu olerkariaren bidetik)
Maite ditut gailurrak argiak ez beste...
Begoñako Amaren oinetan zure alde eskaririk beroena eta
ZORIONAK!

Andra Mari egunean mezatxu bat emen emoteko
moduan bazagoz, dei egidazu; gure atear zuretzat beti dagoz zabal-
zabalik. Besarkada bat.
(1994-08-08an).

Hemen jasoten dot Gotzain egingo eben egunerako bialdu eustan
gonbidapen-txartelean idatzi eustana ere:

Lontzo: Bertso ta guzti, zein bertso barik, baina makina bat bider
alkarren ondoan egon garenok,
zelan alkarrengandik urrin egon olango eleizkizun baten?
Dei berezi au ondo irabazita daukazu.

Nire urtebetetze egunean ere sarri emon izan deustaz Zorionak. Horra,
gure ama hil jakun urtekoa:

Lontzo: Begoñako Andra Mariaren jai
bezperan etorri ei zinan mundu honetara.
Zu ekarri zinduzan ama laztana joan jatzu,
baina orain ama bi dozuz, betiko,
Aita Jainkoarenean.
Zorionak, aspaldiko ikasle zintzo
eta betiko lagun on!. (2007-10-10ean).

Gotzain laguntzaile izan dan azken hamahiru urteotan txitean-pitean
egoten izan gara alkarrekin, biok Begoñan, gotzaindegian lan egiten izan
dogun ezkeru. Hartu-emon anaikorra izan dogu, benetan.

2. Karmeloren izaera

Baketsua, bakezalea eta bake egilea izan dogu Karmelo. Berez berez ha-
rrera ona egiteko erraztasuna izan dau, lagunartean atsegina izan da,
bakezko eta pozezko giroa sortzen ahalegindu da. Ontasun berez erne an-
tzekoa izan dauala esan geinke. Hurkoa, samurra, alaia eta umore onekoa
izan dogu. Askok eta askok autortuko leukeenez, azkenengoekin eta maka-
lekin onbera, zahar, gaixo eta ezinduekin bihotz zabalekoa eta errukiorra
izan da. Legeak (zuzenbide kanonikoa) ikasi ebazan arren, legea ezartea

baino alkarrizketa anaikorrez jokatzea nahiago eban. Igaro zan apirilean, gotzaindegian agurreko omenaldia egin geuntsanean, alkarrizketa bat izan eban Fede Merinogaz Radio Popular-Herri Irratian eta hara Karmelok adierazoz ebana:

Yo procuro ser más colchón que frontón. No me gusta discutir ni enfrentarme con nadie. Eso de que cada cual se convence solo a sí mismo (Unamuno) es cierto; difícilmente convences a los demás; la gente discute por tonterías y eso solo te amarga la vida.

Beragaz inor ez zan deseroso eta txarto aurkitzen. Benetan zaila da Karmeloren areriorik aurkitzea.

Apala zanez, entzule ona zan eta besteen eretxien aurrean begirune handikoa. Alkarlanetako eztabaidetan eta bakoitzak bereari gogor eustean sortzen ziran tentsinoetan bake egile eta sumin bizietan baretzaile izan dogu beti Karmelo.

Izaera horren ondorio modukoa izan daiteke Karmelo bide barrien eta aurrerakoen aurrean apur bat motela izatea eta bildurti lez agertzea, nahiz eta beste batzuek hori bere zuhurtziaren eta begirunearen ondorio lez interpretatu. Adibide modura hartu geinke Karmelok euskera batuaren eta zorrioneko «h»aren auziaren aurrean egin eban bidea. Hainbat urte emon ebazan bide barri horreetan sartu orduko, bera izanez Derioko irakasleen artean «h»a erabiltzen azkena. Hara bere berbak:

Helburu hori lortzea txalogarria da, batez be literatura idatzian. Baina herri baten ohiturak sustrai sakonak izan ohi ditu, eta gauzak goizetik gauera eta goitik behera aldatu gura izatea arrisku handitzat jo izan dot beti. [...]

Horregaitik, ni ez naz egon sekulan euskera batu baten aurka, baina bidea astiro, patxadaz eta kontuz egin behar zala uste izan dot beti. Pierre Lafittek Arantzazuko batzar haretan esan eban legez: «emeki emeki», astiro eta kontuz. Hako «astiro jantzi nagik, prisaz najabilk eta». [...]

Egia dinozu, Ander. Hara, argi ta garbi autortuko deutsut: ni bildurti nintzan pausu horren aurrean. Uste neban euskerarentzat mesedetan baino gehiago ekarriko ebala kaltetan. [...]

Beste gauza askotan lez, honetan be nik zabal jokatu gura izan dot: inori gogorrean ezer ez ezarri, bakotxari askatasun osoa emon beti. Nire ikasleak eta adiskideak ondo dakie nire jokabide honen barri. Gehientsuneak «h» hori erabilten ebela ikusi nebanean (baita gure gotzaitegiak be), neu be erabilten hasi nintzan, eta kito. Ez dot uste horregaz ezer galdu dodanik, ez askotzarik irabazi. Beti esan izan neutsan neure buruari: Ez haz aurrenengoa izango, baina ezta azkenengoa be. Horixe izan da dana (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 106-109).

3. Karmelo eta bidaiak

Karmeloren izaera ezagutzeko aparteko balioa dau haren bidaialetasunak. Gaztelaniaz bada esakune bat oso hedatua eta esanguratsua dana: «En la mesa y en el juego se conoce al caballero». Izan ere, mahaian eta jokoan argi azaldu ohi da sarritan norbanakoaren benetako izatea. Eta horregaz batera ezin ukatu bidaiak ere, endemas egunetakoak diranean, aparteko ezagutza bidea eskeintzen deuskuela.

Bidaizale amorratua izan dogu Karmelo. Oso gogoko eban bidaiak egitea. Udaldiko oporrak heltzean, hor joian gure Karmelo, bere abade lagunekin, Frantziara, Italiara, Suizara, Alemaniara... Abuztuaren hamarrerako —San Lorentzo eguna— behin baino sarriago bialdu izan deust zorion-agurra herrialde horreetako bazter ederren bateko edota Alpe-mendietako paisaia bikainetako postaletaz baliaturik.

Euskeratze lanetan sarbide modukoa bizi izan neban nik 70eko hamarkadan. Astero joaten nintzan Mikel Zarategaz Donostiako Seminaria eta han emoten genduan egun osoa, On Manuel Lekuonagaz batera, eskola barruko «katekesirako», —holan deitzen zan orduan, nahiz eta berariaz «katekesia» ez izan—, liburuak euskeratzen. Itzulpen mundu horretan sartu ondoren, bidaiarik gehienak Mikelegaz egin nebazan nik eta, geroago, Jose

Mari Rementerriagaz egin dodaz, bai Donostiara eta bai Lazkaora. Dana dala, Karmeloz ere hainbat bider ibili izan naz liturgiako itzulpen lanetan hara eta hona.

Bidaietan gaztetu egiten zan Karmelo, eta lagunarte atseginean lehertu egiten zan bere umore ona. Gizon mazala zan berez, eta autulari handia. Ez eban askorik behar izaten zirikadarako, irribarrerako, ironiazko esaeretakarako ezta barre-argara nasairako. Alaia zan adiskideekazko txangoetan. Zenbat kantu entzun ete ditue gure autoek, eta zenbat bertso edota amaitu ezineko erdizka gelditutako bertso moduko, potoren bat tarteko. Baina, hortik aparte, egunetako bidaiak ere egin izan dodaz Karmeloz. Gogoan dodaz, berariazko eran, Israelgo lurraldera eta Italiara egindakoak.

Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Madrileko eta Salamancako abade taldea Lur Santuetara joan ginan 1980ko udagoienean. Salamancako Unibertsidadeak eta Jerusalemgo «Ecole Biblique»k antolatutako bidaiak zan, ikastaro moldera eratua. Bizkaikook Madrilerako joan ginan urriaren 9an. Eta iluntzean R. Madrid - Sporting de Gijón futbol partidua ikusteko aukerea izan genduan. Hurrengo goizean Tel Aviv-era joan ginan edo, hobeto esanda, eroan ginduezan hegazkinez. Handik Jerusalemgo «Maison d' Abraham» ostatura pasaturik, hogeit egun emon genduzan Israel lurraldean, egunez lekuri esanguratsuenak ikusiz eta, iluntzeetan, ikastalditxoak eginez.

Gela berean lo egiten genduan Karmelok eta nik, eta luzeak izan ohi ziran gure autuak eguneroko joan-etorri, gorabehera eta bizipenak gogoan izanez. Alkarbizitzak pentsaerak, sentimenduak eta jarrerak ezagutzera eta partekatzerako bultzatzen dau bat, eta elkar ulertzeko ere aukera berebizikoak eskeintzen ditu.

NIRE GOMUTEN OLATU IRAKINEAN hemen dabilz gaur ere harako Lur Santuetan bizi izandako esperientziak eta bizi izandakoari buruz ehundu genduzan alkarrizketa aberats eta sakonak. Nork ahaztu hogeit egunean «Maison d'Abraham» ostatuan hausnartutako bizipenak eta burututako koplealdi luzeak! Gaur ere dantzari dihardue nire barruan leku hareei lotutako ebanjelio-atalak eta azterketak. Hor dabilz, olatu bailirean, etengabeko gorabeheran, besteak beste, Jerusalem Uria, Tenplua, Erosta-Horma, Dominus Flevit, Oliamendi, Golgota, Afaltokia, Ain Karem, Betania, Je-

riko, Basamortua, Jordan, Genesaret, Cafarnaum, Nazaret, Tabor, Betleem, En Ghedi, Qumran, Itsaso Hila, Massada... Gustora ibili zan Karmelo Lur Santuetan, lagunarte gozatsuan.

Beste bidai bat ere gogoan dot. Balentin Berriotxoa kanonizatu ebenean, 1988ko ekainean, batera joan ginan Erromara. Bizkaitik bost mila bat lagun izan ginan bidai horretan, baina bai autobusean eta baita ostatuetan ere Karmeloz konpartitu neban joan-etorri osoa. Ekainaren 16an abiatu ginan Bilbotik eta Calahorran eta Zaragozan egotaldiak egin ondoren, Lloret de Mar turismo-herrira heldu ginan. Nork ahaztu han, hondartza ondoan musean giharduala, karta hobek jasoten genduzala adierazteko Felix Gallastegik behin baino gehiagotan saminez esandako «como a tontas iatorkez!».

Lloret de Mar herrian, guk lo egin behar genduan hotelean ez egoan lorik egiterik; izan ere, Alemaniako eta Italiako neska-mutil gaztez beteta egoan eta gau osoan ekin eutsen kantuz, zarataz eta astrapalaz, etengabe. Hurrengo egunean Karmelok esan euskun Mezea goizeko zazpi t'erdietan. Jarraian jo genduan autobusera eta, lorik egin barik egoan Karmelok, hartu eban mikrofonoa eta etengabe ekin eutson txisteak eta pasadizuak kontatzen. Javier Ciaurritz *Txapito* zuhur ebilen Karmeloren kontuak eta bromak grabatzen, geroago, autobusean gindoazen guztion barrerako bide, grabazioa guztioi behin eta barriro eskeiniz. Gozatsua izan zan, benetan, Perpignan, Narbonne eta Beziers inguruetan autobusean egoan *xaxaroa*.

Erromara heldu aurretik bertsoen bat kantatzeko eskatu eusten bidelagunak eta koplealdi eta kantu bitartean sartu neban bertsoen bat. Horra:

Erromarantza pozez gainezka / bagoaz kontu kontari,
Noizbait barrezka noizbait erdilo / beste batzutan kantari.
Elorrioko Balentin deuna / zakiguz zeu zuzendari,
Gure herriak eutsi dagion / aurrekoen fedeari.

Bost mila lagun fede biziaz / jai girotan Erromara,
Alaitasun ta fede bizitza / zabaldu guraz mundura.
Bizkai herria eta Eleiza / agertuz lau haizetara,
Balentin gure deun barriaren / gorapenak kantatzera.

Ekainaren 19an San Pedro Basilika aurrean, eguraldi ederrez, handikiro ospatu genduan Vietnamgo Martirien Kanonizazio-Mezea. Hainbeste mila lagunen artean ez zara inor kontuizu, baina ikaragarritzko zirrara eta sentimenduen leherketa eragiten dau halango ospakizun handi, txukun, jantzi eta dotoreak.

Hurrengo egunean, geuk geutara ospatu genduan eskerrak emoteko mezea —San Gregorio VII.a Eleizan izan zala uste dot—. Vatikanokoan euskeraren usainik ere ez genduan izan, baina beste hau geure-geurea, Bizkaiko erromesona izan zan. Eta hemen hamarreko bi kantatu nebazan, erromeskideek eta Karmelok eskaturik:

Elorrioko seme gurena / Berriotxo Balentin,
Jesus autortuz igaro ditu / hainbeste neke ta samin.
Bizi osoa eskainiz beti / jarraibide hobe ezin,
Bizkaitarrantzat eredu argi / herri-maitale atsegin.
Bere bidetik zintzo jarraituz / jokatu daigun ta ekin.

Herri-maitale izan genduan / pelotari ta dantzari;
Jainko-maitale jator argia / erbestean misiolari.
Geure euskeran idazten eutsan / maite-maite eban amari;
Bere burua eskaini eutsan / Jaungoiko Jaun bakarrari.
Arlo biotan izan zakiguz / Balentin gure zaindari.

Hurrengo egunetan, «erromesok» turista antzeko ere bihurtu ginan, Italian zehar ibilaldi edo, hobeto esanda, bidai paregabea osotuz. Argazki ugariiek adierazten daben lekukotasunak argitzen dau gure taldearen alaitasuna eta umorea. Kuriako eguneroko lan astunaz ahaztuta, Bikario Nagusia zan aldi hartan, arnasea zabal eta sakon hartu eban Karmelok Firenzen, Pisan eta Venezian (hemen gondoletan kantuak gozatuz, eta baita San Markos Plazan Mari Karmen Azkunak eta nik «zortzikoa» dantzatzuz), bere abade nortasuna eta bidaide guztiakazko hartu-emon gozo eta abegi onekoa gizabidez eta jokabide finez hazurmamintzen ebala.

4. Karmeloren euskera irakasteko metodologia

Berak autortu euskun aldi haretan Seminarioko euskera eskoletan ez egoala benetakoa metodologia jakinik, eta, apurka-apurka, bideak urratzeari ekin eutsela, ahal izan eben moduan, egozan baliabide urriak eta irakas-kuntzan ziharduen beste lagun batzuen argibideak ere eskuratzen ahalegin-
duz. Horrez gainera, ikasle izango ebezanen argi-ilunak eta jakintza maila aintzat hartzen eben, eskaintzen eben irakabidea esanguratsua eta hareen-
tzat egokituia izan eiten.

Begira Karmelok dinoskuna:

Astean eskola bat baino ez zan izaten, eta metodo jakinik ez genduan. Nire ikasleak euskaldunak ziran, euskeraz berba egiten polito ekienak, baina sekulan euskerea landu bakoak. Lehenengo urteetan gramatika gitxi emoten genduan. [...]

Euskeraz irakurri, euskeraz idatzi, idatzitakoa aztertu ta zuzendu: horra hor gure orduko ikasbide urria... Egia esan, euskerea ondo menperatuta euki arren, euskerea irakurteko eta, batez be, idazteko motel eta trakets aurkitzen zituezan euren buruak, eta laster konturatu nintzan hori ez zala adinik egokiena euskera ikasten hasteko. Ganera, nik neuk be ez nituan gauzak garbiegi ikusten, liburu egokien laguntzarik be ez genduan, eta euskereari astero emoten geuntsan denporea laburregia zan, ezer ganoraz ikasiko bagenduan (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 66).

Ha ta guzti be, urte bakotxean lau-bost idazle hautatu eta euren lana aztertzeari ekiten geuntsan, geroago eta gogotsuago. Idazle bakotxaren eder-mundua zein zan, bere bihozkadak zelan azaltzen zituan, bizitzako arazoan aurrean ze jokabide eukan... Horixe zan, gitxi gorabehera, gure bidea. Eskola barruan nik haria baino ez neutsen emoten, eta gero eurak euretara, bakotxak bere gela barruan, lan txalogarriak egiten eustezan. Ikasleak eurak eta irakaslea, danok pozarren. Orduko nire ikasleen arteko ez gitxik gerora be euskera lantzeari eta irakasteari ekin deutse, eta badauke honezkero euren izena euskal kulturaren hainbat arlotan (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 80-81).

Karmeloren euskera irakasteko metodologian testuez gain euskal kantak ere berariazko lekua izan eben. *Euskerea nire bizitzan* liburuan berak adierazo euskun honen arrazoia.

Aspalditik hartuta neukan jokabide hori. Baina ez, gero, eskolen berezko astuntasuna arintzeko bakarrik eta batez be. Nik hautatu eta erabilten nebazan euskal kantak gure herri-literaturaren zati on bat ziran, eta hauxe zan nire asmoa: gazteak kantok aztertu eta ondo ulertu egiezala, eta gero buruz ikasi. Hori holan egin ezker, bihar-etzi be gogoan izango ebezan, eskola barruko beste gauza asko eta asko ahaztu arren be. Bide hau, gehien baten, Udako Ikastaroan erabili neban geroago, baina aurreko urteetan baita Seminarioan be (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 82).

Hor bertan agertzen ditu, esker onez, arlo honetan laguntzaile izan zituenak ere.

Laguntzaile on batzuen izenak be gogoan dodaz, esker onez: Gotzon Garitaonaindiak, «Txuma» J.M. Olagüe lagun eبالa **Hogei kanta Arantzazuko** grabatu eustezan nire «Geloso» txikian; Xabier Amurizak, lehenengo, eta Lontzo Zugazagak, geroago, herri kanta mordo ederra; abadegai talde batek, (oraindik gogoan dodaz entseiuak eta grabaketa egunak, tarteko nintzan eta) Orixek bere **Euskaldunak** poemaren gehigarritzat jarritako kantak..., J. I. Abasolo (gure ikaskidea eta Karmeloren lehengusua) zuzendari zala. Grabaketa honeek, etxe barrurako eginak, akordeoi eta pianoaren doinuaz lagunduta egozan: Xabier Fresnedo eta Jesus Mari Sagarna izan ziran soinu-jole eta piano-jole (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 82).

5. Karmelo eta Lorategiak

Karmelok irakaskuntza munduan egin dauan ibilbide luze eta oparoan aparteko arreta merezi dabe, izan dituan astiune urrietaz baliatuz osotu eta argitaratu ebazan *lorategiak*. Bera ez zan inondik inora ere gramatikako lege hotz eta zorrotzen irakasle. Euskerea lehendik ekienei irakastea izan da beti bere gurari bizia eta pozik handiena. Eta euskal idazleen mundua eder eta

maitagarri agertzen jakonez, irakurgaietaz baliatzen zan gehienbat, euskera irakasteko liburu eta baliabide egoki asko egon ere ez egoan orduan eta. Karmelo irakaslearen jokabidean, testuak eta kantuak erabiltzeak ez eban helburu klasearen astuntasuna arintzea huts-hutsean, gorago esan deuskuenez. Ikasleentzat eskolea eroangarriagoa, erosoagoa eta arinagoa izateaz gainera, metodologia emonkorragoa, gozatsuagoa eta aberatsagoa lortzen eban, gure euskeran ere gizaldiak zehar esapide eder ugari izan dala jakin erazoz eta euren ederra ahogozatzen lagunduz.

Holan, bost antologia egin eta argitaratu ditu Karmelok, bostak bere ikasleentzat lagungarri izan eitezan.

1. *Euskal-Idazleen Lorategia. Antología de prosistas vizcaínos*, Seminario de Derio, 1965. Bizkaieraz, hitz lauz. (Multikopiaz).
2. *Euskal Idazleen Lorategia II*. Gipuzkeraz, Derioko Seminarioan, 1967. Gipuzkeraz. (Multikopiaz argitaratua).
3. *Euskal Idazleen Lorategia*. Donostia, 1969. (Hemendikaldekoak).
4. *Euskal Idazleak Bizkaieraz. Antologia, Testu Azterketak, Ariketak*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1980. Itz lauz. (Azterbideak eta ariketak Jon Kortazarrek eta Aitor Etxebarriak).
5. *Iparraldeko Euskal Idazleak*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1981.

Lorategien inguruan ebazan «eretxi, asmo eta gogoetak» Karmelok berak eskaini euskuzan Euskerazaleak Alkartek eratutako *Bizkaieraren Astean* egindako berbaldian, Bilbon 1985. eneko maiatzaren 8an. Hona hemen orduan emon zituan argibide batzuk:

— Zertarako lorategiak? Zergaitik ez idazleen lan osoak eskaini? Begiak zabalduazoteko eta gehiago irakurri gurea sortuazoteko (bazkari eder baten aurreko bizkorgarriak).

Euskal literaturaren ikuspegi osoa ta zabala izan dagien: idazleen izenak eta idazlanak; gure elertiaren noiztik norakoa; gure elertiaren aldiak, gorabeherak, asmoak, egarriak, kezak, arazoak; ederzaletasunaren lilura gozoa sortuazoteko: «Euskeraz be gauza ederrak esan dira, esan daitekez eta NEUK BE ESAN BEHAR

DODAZ!»; gramatikako azterketarako gai biziak izan dagiezan (euskalkiak, aldaketak, hiztegiaren gorabeherak, adizkerak, joskera...).

Euskal bizitzako alderdi asko eskainiz, ikasgurea, iker-gurea eta eztabaida aberasgarria sortuazoteko ikasleen artean. Gai asko, era askotakoak.

Beti be, irakasleak idazlan osoak irakurtera bultzatu beharko ditu ikasleak.

—Norentzat dan argi ikusi:

Perikori latina irakasteko, lehenengo Periko bera ezagutu beharko da, gero latina.

Nire Lorategietan, ondo baino hobeto nenkian nortzuk eta zelakoak zirean ikasleak: bizkaitarrak, hain mailatakoak, honenbeste dakienak, honako edo holako eragozpenak eta zaletasunak daukeezanak.

Pedagogia arteza erabili: dakigunetik ez dakigunera, geuretik euskera zabalagora (mailaz maila, ganoraz eta zentzunez, gauzak erreztuz, bideak erakutsiz).

—Irakasle on baten beharizana

Lorategiak ez dira beste barik zuzenean irakurteko, lehenengo orritik hasi eta azkeneraino.

Irakasleak berak ikusi beharko dau eskola bakotxa ta ikastaldi bakotxa zelan eratu: aroak, gaiak, literatur motak... Horregaitik, nik Aurkibideak eskaintzen dodaz beti.

Irakasleak **erakusle** izan behar dau, bere eretxia inori gogorrean ezarri barik. Horregaitik, bere gogo-gogoko ez diran gaiak eta idazleak be aurkeztu beharko leukez, urteak joan urteak etorri gogoaldaketa sakonak eta ugariak izaten direalako.

Testu azterketak eta ariketak dauken balioa: lagungarriak dira, sarreratxu eta hiztegiekin batera (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 284-286).

Esana eban Karmelok aurretiaz ere bere irakasle jarduna «erakusle» egin-kizunak adierazten ebala zuzen eta zehatz:

Behin baino sarriago esan izan deutset ikasleei: Hara, ni ez naz irakaslea, ni «erakuslea» baino ez nozue. Ikusten dozue hor Ganguren mendi tontor hori? Ez da horren handia, baina Bizkaiko beste mendi asko ikusten da hortik: Gorbeia, Anboto, Udala, Mugarra, Oiz, Sollube, Jata, Ganekogorta, Eretza... Nik Gangurenera baino ez deusuet lagunduko, eta handik beste mendion izenak eta bideak erakutsiko. Gero mendiotara igo gura badozue, zeuok egin beharko dozue bide hori...! Ikastaro labur baten gehiago ezin egin! (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 103).

Horra hor, bada, gure Karmelo «erakuslea», autore guztiei sarrerak eskainiz, aurkibideak, azterketak eta ariketak prestatuz eta ikasleak literaturaren ederra gozatzera bultzatuz, aldi berean ikasleengan idazteko bildurra bazter-tuz eta idazle izaten ausartu daitezcan berotuz, horretarako sariketak eratuz.

6. Liturgia barria euskeratzen

Vatikano II. Kontzilioak Liturgiako Konstituzinoa (SC) argitara ondo-ren, ikaragarritzko barrizatze giroa sortu zan eleiza guztietan. Eta gurean ere behingoan hasi ziran bide barriak urratzen. Beste gauza asko garrantzitsu eta gora handikoen artean, eleizeak bere liturgia herri bakotxaren berbetara bihurtzea erabagi eban. Eta hor sartu zan edo sartu eben gure Karmelo liturgiako itzulpen lanetan. Berrogei urte baino gehiagoko bide luze horretan hainbat ordu eta hainbat izerdi emon dau talde-lan astun eta neketsuan. Bidaiak, astebeteko edo hamabostako ekitaldiak Estibaltzen eta Donamarian, urteroko batzarrak Donostian..., batzarretako buruhauste eta eztabai-dak..., eroapenez jasan zituan Karmelok euskal eleizearen zerbitzuan, liturgia osoa gurean duintasunez ospatua izan eitean. Ondotxo ekien hori Aita Lino Akesolok, On Manuel Lekuonak, Jesus Gaztañagak, Eustasio Etxezarretak eta Euskal Herri osotik, iparraldetik eta hegoaldetik lan eder hori burutzen ahalegindu ziran beste abade eta fraide askok.

Astiro eta mailaka egin dan bide neketsu horretan Kontzilioa amaitu eta 90. urtera arte ekin deutso gehienbat Karmelok. Gero ere lagundu izan dau, baina ez hor buru-belarri sarturik, beste ardura batzuk tarteko. Dana dala, *Euskerea nire bizitzan* liburuan gogoan ditu emondako pauso ugari eta baliokoak eta aitatzen ditu baita gaur eskuartean doguzan batzuk eta gerora bete beharrekoak ere.

Hona hemen pausootako batzuk Karmeloren hitzetan (guztiak dagoz bere *Euskerea nire bizitzan* liburutik jasoak):

Mezako irakurgaiak herriko hizkeran erabilteko [...] eta itzulpen ofizialak egin artean, Kerexetaren meza liburuko (*Eguneroko Meza*) irakurgaiak erabilteko baimena emon eban gure Bilboko gotzainak (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 87).

Oker ez banago, *Mezaren egunerokoa* euskeratzea izan zan hurrengo pausua (ez orain erabilten doguna, lehengo latinezko mezearena baino) (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 87).

(Itzulpen ofizial hori) Asko eta bizkor zabaldu zan gure eleizetan. Milaka eta milaka ale, hainbat argitalpenetan. Behingoan ikasi zituan buruz herriak bere erantzunak, eta zati batzuk kantuz be jarri ziran (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 88).

Hasiera baten, euskal eleizbarruti bakotzak bere aldetik jokatu eban, bakotzak bere itzulpena egiten eta zabaltzen ebala. Zorionez, egoera honek ez eban luzaro iraun: Mezako Irakurgaiak prestatzeko alkarregaz lanean hasita gengoan, gure arteko muga estuegiak hausita. Eta *Canon Romanum* (orduko Eukaristi Otoitza, Latin Eleizeak gizaldi askotan erabili izan dauan bakarra) itzultzeko baimena Erromatik etorri zanean, orduan Euskal Herri guztiko Eleizen ordezkariak alkartu eta itzulpen hori egiteari ekin geuntsan, gotzainen baimen eta guzti. Egia esan, Erromak be holakoxe batasuna eskatzen eban hizkuntza bakotxaren eremuan (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 89).

Canon Romanum horren testua bera ez zan luzeegia, baina oinarritzko itzulpen bakar batera heltzeak eztabaida luzeak eta lau-bost ekitaldi luze ta gogor eskatu euskuzan. Nekeak neke eta eztabidak eztabaida —badakizu, nork bere opilari sua, bakotzak bereari eutsi gura!—,

lortutako fruitua mesedegarria izan zan guztiondako, eta argi ta garbi ikusi genduan horixe zala aurrerantzean be gure jokabiderik zuzenena: alkarregaz lan egin, eta ahal zanik eta batasunik handienera hurrerutzen ahalegindu. Harrezkero hortixek jo izan dogu beti. Gaur be bai (*Euskere nire bizitzan* 2003: 89).

Handia, luzea, neketsua, txalagarria eta, gizonon lan guztien antzera, ez hutsik bakoa. Itzultzaile taldea, urte barruan, astean behin baino ez zan batzen. Donostiako Seminarioan; gero, udan, leku baketsu bat bilatzen zan, lanari gogor ekiteko astebetean edo hamabost egunean: Estibalitz, Donamaria... Asteroko lanetan Aita Lino zan bizkaitarron ordezkaria, udakoetan beste batzuk be ekiten geuntsan, gogatsu eta girorik anaikorrenean, beti be guztion buru ta zuzendari On Manuel Lekuona zala (orduan euskaltzainburua) eta Jexux Gaztañaga idazkaria. Holantxe egin zan urte askoren buruan, liturgia osoaren itzulpena (*Euskere nire bizitzan* 2003: 89).

Itzulpena bera, ahal zan neurrian, bakarra zan. Baina, jakitunentzat barik, herri herriarentzat zalako, eleizbarruti bakotxak hizkerea zerbait egokitu egiten eban, orduko entzuleen preminak gogoan izanik. Dana dala, kriterio batzuk argi egozan: egunero edo sarritan erabili behar diran testuak, eta herriak buruz ikasi edo katurako behar dituanak, horreek ahal zan neurrian bardinak izan eitezala; besteetan, batez be irakurgaietan, askatasun handiagoz jokatu izan da (*Euskere nire bizitzan* 2003: 90).

Egin ahala argitaratzen ziran lanok. Lehenengo urteetan horixe izan zan hartutako bidea. Gero Erromak liturgi erreformea amaitutzat emondakoan, zatirik behinenak barriren barri argitaratu doguz, liburu handi dotoreetan. Hor doguz, esaterako, Meza-Liburu nagusi biak: *Altarako Liburua* eta *Irakurgaiak* (*Euskere nire bizitzan* 2003: 90).

1984an eta 1988an argitaratu ziran Bizkaian liburu eder horreek, eta, harrezkero ere, laguntza eskaintzen jarraitu dau Karmelok baina urrutiaotik. Dana dala, liturgi arloan egindako lan handi hori guztiz mesedegarria izan dala gure Eleizearentzat eta baita euskerearentzat ere autortu ondoren, Ander Manterolak itaun hau egin eutsan Karmelori: Zuek horretan hasi zineenetik hona, bide luzea egin dau euskerearen arazoak. Batez be, «euskara

batua» nagusitu da, geroago gehiago, gure artean. Ze eragin izan dau indar barri horrek Eleizearen hizkeran? Eta Karmelok:

Alde batetik, ez handiegia: gure liburuak ez dira aldatu (izan be, ez da hain erraza goizetik gauera holako liburuak barriren barri aztertu eta argitaratzea). Baina gauzak oraingo bidetik aurrera badoaz, eta euskaldun fededunen belaunaldi barriak bide horretatik jotzen badabe, Eleizeak be bere liburuak egokitu egin beharko ditu. Nik dakidanez, hor dabil aspalditxuan taldetxu bat (Donostian alkartzten garanok: Eustasio Etxezarreta, Dionisio Amundarain, Jesus Mari Arrieta, Jase Mari Rementeria eta Lontzo Zugazaga, —neurea da izenen zerrenda—) mezaliburu eskurakoia (txikia) egin guran; bide batez, egindako itzulpenak zehatz aztertu gura ei dabez. Jakina, euren lan hori argitaratzerakoan, Euskaltzaindiak urteotan emondako arauen bidetik joko ei dabe (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 91).

Karmelo jakitun egoan Jose Mari Rementeriarene eta nire bitartez meza liburu txikia egiteaz gain *Altarako Liburua* eta *Irakurgaiak* liburua ere eraldatzea zala gure (goian aitatu dauan taldetxuaren) asmoa, eta mezaliburu txikia bakarrik batuaz baina azken biok batuaz eta bizkaieraz eskaintzeko asmoa genduala.

Manterolak barriro ekin eutson: Agirian dago euskal eleizbarrutiak, azken urteotan, euren dokumentu ofizialak argitaratzean dalako «euskara normalizatu» hori erabilten dabela. Hor doguz, esate baterako, Euskal Herriko gotzainak Garizuman urtero argitaratzen daben Artzain Gutuna... Eta Karmelok:

Bai, bai. Gutariko bakotzak geure eretxiak eduki geinkez euskeraren arloan; baina, dokumentu ofizialetan ontzat emana dago zuk aitaturiko «euskara normalizatua». Ha ta guzti be, Bizkaiko Eleizeak, azaleko zeretari hortik jo arren, bizkaieria erabilten dau, gehien baten, oraindino gure herririk gehienak euskalki hauxe daualako argien eta maiteena (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 91).

Ataltxo hau ez neuke amaitu gura itzulpen-taldearen inguruan Karmelok behin baino gehiagotan egindako gogoeta interesgarria aitatu gabe. Gorago jarri dodanez, alkarlanetako eztabaidetan eta bakotzak bereari gogor eustean

sortzen ziran tentsinoetan bake egile eta sumin bizietan baretzaile izan da Karmelo. Baina ez daigun pentsa hori berez eta errez egitekoa zanik. Behinola Mikel Zaratek bere bertso batzutan esan euskunez «berez ezertxo ere ez». Hara Karmelok argi eta garbi behin baino sarriago adierazo euskuna:

Itzultzaile-taldeak egindako lana handia (eskergea!) eta mesedegarria izan da Euskal Herriko Eleizearentzat, eta baita euskerearentzat be. Hutsak huts, guztiz txalogarria. Baina baita nekeza eta gogorra be! Sarri askotan aldasgora pikea izaten zan danen gogoko ziran itzulpenak lortzea, euskaldun guztientzat argi eta gozo izan eitekezan berba eta esaerak aurkitzea. Lankide guztiak ziran euskal gaietan jakitunak, baina euskalki ezbardinetakoak, eta bakotxak berea atara gura aurrera. Eroopen eta apaltasun handia behar da askotariko eretxiak aintzat hartzeko, amore emoten jakiteko, batasunak eta norberaren herrialdeak eskatzen dabena alkartzeko (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 226).

Geroago, bai *Altarako Liburua* eta *Irakurgaiena* egiterakoan, kiputzak eta bizkaitarrok alkartuago egin dogu azken lana; eta, batasunaren izenean, ahal danik eta bardintasunik handiena lortu nahi izan da itzulpenetan, Erromako aginduak be bide horretara bultzatzen gaituala-ta. Autor dagidan jokabide barri honek min handia emon deuskula bizkaitarroi, behin baino sarriago: batasunak eskatzen eban testua zehatzagoa, zintzoagoa izango zan, bai; baina bazterrean izten genduan lehengoa (Linok egokitua), ez ete zan legekoa? Guretzako gozoagoa, bertokoagoa bai, behinik behin. Baina batasunaren bidean, bizkaitarrok sarri galtzaile.

Latza eta gogorra da berez talde-lanean ekitea. Ganera, norberaren izen onarentzat ospe gitxikoa. Nok daki zeinek zer egin dauan? Holako lanik gehienak egileen izen barik argitaratzen dira (liturgiakoak bai, behintzat); eta horretan egindako ahaleginak, emondako orduak, itxura baten sari eskasa emon ohi deutse egileei.

Hori gutxi dala, zure atzetik datorren eskuak zuk borondaterik onenaz egindakoa aldatu egiten deutsu; aldatu nahiz baztertu, eta ez beti ganoraz eta zentzunez.

Dana dala, poz-pezik autortuko deusku Karmelok:

Itzulpen mesedegarriok lagun askoren nekeak, ahaleginak eta jakituria zabaltzen dabe egunero Euskal Herri osoan, eta luzaroan zabalduko al dabe! (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 228-229).

Eleizbarrutiarteko taldean lan egin ez arren, ahal izan dauanean, Karmelo pozik etorten izan da Bizkaiko eleizbarrutian lanean dihardugun bertoko taldetxora. Eleiz gaietarako euskal baliabideak prestatzea da Bizkaiko beste talde hau osotzen dogunon taldearen asmoa eta partaide izan dogu Karmelo bere ardurak galera izan ez deutsenetan. Horregaitik dinosku bere liburur sarri aitatu horretan:

Ganera, badaukagu batzorde bat be, euskerea eleiz gaietan erabilteaz arduratzen dana, Andoni Gerraikaetxebarria bikario nagusia buru dala (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 95).

7. Zorion-agurrak Karmelori

Gorago aitatu izan dot neure santu egunean eta urtebetetzeetan zorionak emoten eustazala Karmelok, bere niretzako ondogurea adierazten eustala. Nik ere sarri idatzi eta kantatu deusat nire zorion-agurra bere urtebetetzean. Asko galdu edo aldendu egin jataz baina, nire paperen artean, hemen agertu da oraindik abade zala (ezgotzain) idatzi neutson bat. Nik makalaldi bat izan neban eta Karmeloz eta Jose Marigaz (Rementeria) kanpora joateko aukerea izan neban, atsedean apur bat hartuz arnas barria neuganatzeko. Eta horren ondorengoa da (1986-04-24) zorion agur hau:

*Apirilaren hogeitalaua
Gaur zure urte eguna
Nire barruak ezin dau ahaztu
Zure laguntza sakona
Jaungoiko Aitak emon deizula
Zeuretzat behar doxuna
Eta Bizkaian dan Eleizari
Barriztatze zuzenena
Aldakuntzetan nagusi dala
Kristau sena ta zentzuna*

Gizon bakotxa bere izenez
Deitzen dau Jaungoiko Jaunak
Danok ezbardin egin gaitu-ta
Bere bihotz-maitasunak
Bardintze-bide zapaltzaileak
Guk sarri nahi doguzanak
Aurrelaritza-atxaki merkez
Jarriaz lege astunak
Emon deigula bihotz biguna
Kurutzetik Artzain Onak!

Jagoten dot, hori bai, gotzain izendatu ebenean, adiskideok Santutxun berarekin egin genduan afari ostean kantatu neutsana:

Hartu Karmelo adiskideon
Bihotzeko zoriona
Gozain-bizitzan lortu daizula
Asmo danen garapena
Eleizbarruti osoarentzat
Izan zaitez artzain ona
Bultzatu beti adore handiz
Bakea ta batasuna
Izan samurra makalenekin
Eta jagon euskal sena
Izan samurra makalenekin
Eta jagon euskal sena.

Eta gordetzen dodaz, azken urteotakoak, gotzain zala berari eta beste gotzainei batera kantaturikoak. Izan ere, gotzain guztien urtebetetzeak batera ospatzen genduzan, guztien jaiotegunak apirilekoak ziran eta. Gotzain ordenatu aurretik, gotzain-makila (báculo) emon geuntsanekoa jasoten dot lehenengo, eta ondoren, gotzain ordenatu eben egunean Begoñako basilikan kantatu nebazan biak.

Eleizbarruti osoarena
Dozu makila dotore
Bide-gidari izan zaiguzan

Maitasunezko botere
 Artzain Onaren zereginean
 Ez emon inoiz amore
 Ardi galdu ta makalenentzat
 Ardi galdu ta makalenentzat
 Izan argi eta adore! (1995-10)

Hartu, Karmelo, bizkaitar danon
 Bihotzeko zoriona
 Lortu egizu gotzain bizitzan
 Asmoen betetasuna
 Eleizbarruti osoarentzat
 Izan zaitetz artzain ona
 Bultzatu beti adore handiz
 Bakea ta batasuna
 Jagon arduraz euskal sena ta
 Fededunon nortasuna
 Fededunon nortasuna.

Izan zakiguz danon gotzaina
 Jainkoaren mezulari
 Salbatzen gaitun Jainko-Hitzaren
 Berarizko zerbitzari
 Poz-nahigabetan guztion lagun
 Barri Onaren agiri
 Behartsuekin errukior ta
 Kristau-bidean gidari
 Jesus Jaunaren Espiritua
 Isur gure herriari
 Isur gure herriari. (1995-11-09)

1996.eko urtetik 2007ra bitartean urtero zoriondu dodaz gotzainak, euren omenez Kuriako sail guztiok alkartu izan gareanean. Horra hor urte batzutakoak:

Udabarriko haizez ta amasez
Jaio jakuzan gotzainak
Ta pazkoaldiz bizkortu dira
Gure amets atseginak
Emakume ta gizon guztiok
Lantzen gaitu Jainko-minak
Baina burrukan ta sokatiran
Dabilz gure nahi ta ezinak
Alkartearen hurkotasunak
Leundu beiz zuon saminak
Leundu beiz zuon saminak.

Eleizbarruti korapilatsu
Ta bizia da gurea
Kantauri ertzak ez dau eskeintzen
Inoiz itsaso barea
Hitz, ekintza ta hartu-emonetan
Beti da gorabehera
Baina askoren lankidetzagaz
Lauago da ardurea
Izan zorion neke artean
Ta ez galdu umorea
Ta ez galdu umorea. (2001)

Bilboko gotzain izan nahi bada
Horra baldintza bitxia
Apirilaren amas barritan
Ikusi lehenen argia
Halan Ricardo eta Karmelo
Baita be On Luis Maria
Dirudienex aspalditxoan
Hau da kako berezia
Ondo argitu ta gidatzeko
Gure eleizbarrutia
Gure eleizbarrutia.

Negu gorria jasan ondoren
 Ardi ta bildots dantzari
 Eguzkiaren printzen berotan
 Batuz barruti ugari
 Eta artzaina euren artean
 Jagole eta gidari
 Izan bekiguz gotzainak ere
 Fededunon aurrelari
 Ta Pazko-pożak bultz egin beio
 Euron artzain ardurari
 Euron artzain ardurari. (2002)

Euriak busti ditu bazterrak
 Eta eguzkiak berotu
 Añirileko eguraldiak
 Bizí barria girotu
 Biluzik ziran arbola hotzak
 Ememuin biziz narotu
 Ta gizakion odol barea
 Gora-beheraka erotu
 Txorien kantak poztu gaitu ta
 Lore-usainak gozotu
 Lore-usainak gozotu.

Erraiak sutan dogu Bizkaia
 Irakin etengabea
 Ta berton dogun Jainko-Herria
 Aldaketa bizkorrean
 Behin ta barrero ardura handiz
 Eguneratze gosean
 Fede-mezua buztartubahirik
 Gure herri-izatean
 Udabarria loratu dadin
 Gure kristau-baratzean
 Gure kristau-baratzean.

Bermoldaketa haize biziak
Dantzán eleiz-alkartean
Asmo eta amets poz ta nahigabe
Gotzainen bizibidean
Baina gaurkoan jai giro alaiz
Anaiarte epelean
Jaso begie zorion-agurra
Euren urtebetetzean
Ta garapena lortu daiela
Pazko-argi ta bakean
Pazko-argi ta bakean. (2004)

Zugatz eta landare
Udabarriz lore
Etorkizun hoherantz
Jantzitan dotore
Epeltasun gozoan
Bizkortuz kolore
Euri eta eguzkitan
Jasorik adore
Bizitza barriari
Emonez amore
Bizitza barriari
Emonez amore.

Bizkaiko gotzain danen
Jaiotza egunak
Lankide garenontzat
Jai-ospakizunak
Bete begiz artzainak
Zorion-lurrinak
Bizi barri-arnasak
Eta argitasunak
Frutuak izan daizan
Gure herri kutunak
Gure herri kutunak.

*Berariaz zorion
 Ricardo artzaina
 Bizkaiko eleizaren
 Arduradun fina
 Espainiako gotzainen
 Nagusi egina
 Bekizu lan barria
 Zeregin arina
 Sinistunon zerbitzu
 On eta atsegina
 Sinistunon zerbitzu
 On eta atsegina. (2005)*

8. Gotzain laguntzaile

Bizkaiko Eleizearen zerbitzari izan dogu beti Karmelo, apal eta leial, zintzo eta adoretzu. Bere abadetzako ibilbidean (1955-2008) Gurrupidegaz, Cillardagaz, Añoverosegaz, Uriartegaz, Larreagaz eta Blázquezegaz bat egin dau. Honeek izan dira gure eleizbarrutiko gotzain Karmeloren abade bizitzan zehar. Berrogeita hamahiru urteotan hartuemon ugariak eta hurkoak izan ditu gotzain guztiekin. Izan ere, goi arduetan ibili izan da, Seminarioan, Kurian (kantzilero) eta eleizbarrutian lurralde bikario, bikario nagusi eta, azken hamahiru urteetan gotzain laguntzaile.

Nahiz eta goi arduetan jardun, herrian esan ohi danetz, Karmelo ez zan jaio agintari izateko. ‘Nagusia’ deitura izan arren, nahiago izan dau beti besteek agintzea eta berak zerbitzu isil, apal, leial eta oparoa eskaintzea.

Sendo eta seguru esan geinke, eleizeagazko alkartasun erabatekoa eta gotzainakazko leialtasun hautsezina izan direla bere abade bizitza osoaren ardatz. Gotzain laguntzaile izendatu ebenean kezkatuta egoan. Izan ere, une hareetan gure eleizbarrutia, gehiena, nahiko urduri eta haserre egoan Erromako eta Madrilgo Nuntziaturak agintarikeriaz jokutzen ebelaokan, bidezko eta zentzuzko ziran eskariei entzungor eginez. Nahiko adiskide eban abade euskaldun batek, garratz eta gogor, eta gainera «gaztelaniaz» idatzi eutson Karmelori gotzain laguntzaile izatea onartzean, goiko beste

buruzagi horreei men egiten eutsela eta gure eleizbarrutiaren kalterako zala adierazoz, bere baietzak Blázquez etortzea ahalbideratzen ebalako. Orduan ere Karmelok bare erantzun eutson, euskeraz hori bai eta argi, baina ezelango sumin agiririk gabe, eta adiskide irautea nahi ebalada adierazoz.

Ondo gogoan dot, egun horreetan hain zuzen, Karmelok zer esan eustan Begoñako basilika aurrean. –Zu, Lontzo, baina lagun izaten jarraituko dogu, ezta? Neu ere odol bizikoa izanik nahiko haserre nengoan arren, badakit zelan erantzun neutsan. –Jakina! Gure adiskidetasuna horren gai-netik dago.

Dana dala, ziur be ziur nago Karmelok emon eban baietza ez zala izan inondik ere handinahikeriaz ez harrokeriaz, ez gure eleizbarrutia aintzat hartu gabe, bakerako zerbitzu gurariak eraginda baino. Berak behin baino gehiagotan autortu izan dau: «Kargu batzuk eskaini deustezanean, konturatu eta jabetu naz zerbitzuaren nondik norakoaz eta, nahiz eta gogoko ez izan, onartu eta Jaunaren esku eta ardurapean jarri dodaz, Berarengan dodan fedearren eta eleizeaganako maitasunak eraginda».

Holan, ez da mira egitekoa Ricardo jaunak Karmeloren hileta-mezan esana: «Gotzainagazko —nigazko— leialtasuna benetakoa, garbia, oso-osokoa eta ezelango arrakalarik gabea izan da. Karmeloren eleizeagazko komuninoa erabatekoa izan da, kanpotik eta barrutik; ordainezina da niretzat horren (gorpuaren aurrean) lankidetzak kualifikatua, pertsonen eta eleizbarrutiaren ezagutza, zuhurtziatzeko sena eta, gauza guztien gai-netik, Jainko maitatuaren eta Eleiza Amaren zerbitzua bene-benetan bilatu izana».

Ederra litzateke, baita, hemen papereratzea Antonio Añoveros jaunagaz izan eban hartuemon luze eta samurra (urteetan bizi izan ziran biak Begoñako Refugioan, D. Antonioren dimisinotik eta heriotzera arte), eta D. Luis Maria Larreagazko lankidetzak eta adiskidetasuna (haren Bikario Nagusi izan zan 1980tik 1989ra arte). Baita beste gotzainakazko lankidetzak ere, baina horrek luzeegi joko leuke.

Gotzain laguntzaile egin ebenetik aukera barriak izan ebazan Karmelok aurreko urteetan baino euskera gehiago egiteko. Ricardo Blázquez gotzainak ez daki euskeraz. Eta Karmelok ez eban inoiz haragitu herri euskaldun

bateko abade izatearen ametsa, baina gotzain laguntzaile lez pozarren ibili da azken hamahiru urteotan herririk herri, batzarretan, eleizkizunetan, herrietako jentearekin bakez eta nasai alkarrizketa eta kopletaldiak eginez. Berak autortzen deusku:

Gotzain nazanetik hona, lehenago baino aukera gehiago dot euskeraz berba egiteko, euskal herri askotara joan behar izaten dodalako. Bateko hau dala, besteko hori, batera eta bestera ibili behar izaten dot, eta batzar eta eleizkizun askotan euskeraz berba egin behar. Egia esan, Bilbo barruan itota baino nasaiago ikusten dot euskal herrietan neure burua, pozago izaten da nire euskal bihotza (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 95).

Horrezaz gainera, urteotan zehar, lurraldez lurralde artzain-ikustaldiak egitean, sendotza ospakizunetan eta, batez bere, Gabon eta Aste Santuko ospakizunak direla eta, hainbat mezu eskaini deusku Karmelok, irrati bidez berariaz azkenengook.

9. Agurra gotzaindegian (Kurian)

Gotzain laguntzaile izan genduan Karmelo, Blázquez gotzainarekin eta eleizearekin beti langile, apal, arduratsu, zuhur eta erabat leial. Hirurogeita hamabost urte bete ebazanean, (2007-04-24), karguari uko egiteko prest egoala adierazoz, Aita Santuaren esku jarri eban kargua. 2008ko zezeilaren 5ean, karnabaletan, Hauts-egunaren bezperan, Mario Izeta izendatu eben Bilborako gotzain laguntzaile; eta apirilaren 4ean eskaini geuntsan Karmelori agur-ospakizuna Begoñan. Goizez, espiritualidade-etxean, Kuriako langile guztion aurrean, Ricardo gotzain jaunaren eta beste guztion eskerrak jaso ondoren, bere eskerrona adierazo euskun Karmelok, bere berbalditxo bertso batez amaituz. Bezperan esana eustan niri: Zu, Lontzo, bihar *Amerikara noa* doinuaz bertso hau kantaiko dot eta zure erantzunaren begira gertuko naz.

(Karmelok guri)

Berriz aldera noa
Neure borondatez
Hemen baino hobeto
Bizitzeko ustez
Gogait eginda nago
Hainbeste batzarrez
Agur lagun maiteok
Ondo bizi beitez!

(Nire erantzuna)

Jaso eizu, Karmelo,
Gure esker ona
Gotzaindegi guztiko
Langile danona
ia bizi osoan
Gurekin egona
Ez dogu sekula ahaztuko
Zuk guri emona.

Batzarrez gogaitua
Zoaz Berrizera
Lagunarte gozoan
arnasa hartzera
Zeure hurkotasuna
Apal eskeintzera
Merezitako atsedena
Bakez gozatzera.

Ahaztu batzarretako
Hitz aspergarriak
Bizi lagunarteko
Solas pozgarriak
Gehitu bidai ta txango
Atsegingarriak
Goza jubilatatu urte
Atsedengarriak.

Lankide ta adiskide
 Gaur pozik zurekin
 Iraun daigun gero be
 Gogoz alkarrekin
 Bizkaiko eleizaren
 Zerbitzuan ekin
 Gure herria gara dadin
 Kristau-senarekin.

Egun berean, arratsaldeko Mezea, Begoñan, ederra eta hunkigarria izan zan. Karmeloren berbaldiak, samurra eta sakona, barru-barruan zirkin eragin euskun Begoñako Eleizea betetzen genduan gizon-emakume guztioi.

Azken bedeinkazino aurretik, bertso hau eskaini neutsan eskerronez eta begirunez:

Eskerrik asko guztion partez
 Bihotzez Karmelo zuri
 Babes sendoa emon deutzazu
 Apalik D. Ricardori
 Bizkai osoa zeharkaturik
 Jaun onaren zerbitzari
 Barri Onaren bakez ta pozez
 Beti batasun-gidari
 Gerora ere lagun bekizu
 Begoñako Andra Mari
 Begoñako Andra Mari.

Batzarraren batzarrez aspertuta, arnasa hartu gura eban Karmelok; lana eginaz, bai, baina nasaiago, ordu guztiak inork programatuta izan gabe; berak beratarra gehiago eratuz, urteetan zehar gogoko izan arren egin ezineko gauzak, orain patxadaz eta bakez hazurmamintzeko astia hartuz. Bazituan asmoak, ametsak eta gurariak, baina egitasmoak burutu gabe, erdi ezustean, behingo baten joan jaku, maite-maite eban Begoñako Andra Mariaren eleiza ondotoxoan, Virgen Blanca erietxean.

10. Karmelori azken agurra Begoñako Basilikan

Bere abade bizitza osoan gune berezi eta maitatua izan dauan Begoñan hil jakun Karmelo pasa dan urteko azaroaren 6an. Begoñan egin zan abade (1955), Begoñako parroko izan zan (1990-95), Begoñan egin zan gotzain (1995-11-09), Begoñan ospatu eban gotzaindegiaren agurra (2008-04-04), eta, hoba ez, berak aurretiaz halan eskatuta, Begoñan egin geuntsan azken agurra, azaroaren 7an. Eleizbarrutiko gotzainak, D. Ricardok, beste dozena bat gotzainek eta ehundik gora abadek ospatu genduan hileta-mezea. Begoñako eleizea eta eleiz-aurre osoa jentetz josita egoan. Maitatua izan da, benetan, Karmelo, eta jentetza hain ugaria izan da maitasun horren adierazgarri eta egiaztapen.

Ederra izan zan mezea, sakona, hunkigarria, barruan zirkin eragiten daben horreetakoa. Kanpotik etorritako askok ere hori autortu eban, esker onez, sakristian eta kanpoan. Norbaitzuek euskeraz gehiago ez eginaren pena ere adierazo eben. Otoitzez eta kantuz ondo hornidua izan zala autortu behar. Karmelo esker onez egongo zala uste dot. Nik, Karmelok aurretiaz esandako berba batzuk gogoan neukazanez, hutsunetxo bat barruntau neban.

Berak esana euskun *Euskerea nire bizitzan* liburuan:

Gauza bat, behintzat, argi be argi dago, Ander: gureak laster egingo dauala, eta kristinau lez, azken agurra egitean, euskeraz abestuko al deuskue: Agur, Egun Handirarte! (*Euskerea nire bizitzan* 2003: 110).

Hainbeste bider, hainbat abaderen hiletetan esandako bere adiskide Joan Mari Lekuonaren bertsoak ez geuntsazan kantatu. Hilabete bizitxo lehenago, gaixotu zanean hatan be, Martin Olazarren hileta egitekoa izan zan Karmelo. Eta gotzaindegian berbaldia prestatu ebanean, irakurri egin euskun Andoni Gerrikaetxebarriari eta niri; eta eskari hau egin eustan: Lontzo, herritarra be badozu eta bertso bat kantatu behar deutzazu hileta mezaren azkenean; otoitz modura egizu. Halan prestatu neban. Hurrengo egunean, ostera, irailaren 23an Mungian, harrituta gelditu nintzan Andonik esan eustanean: Lontzo, Karmelo ez dok etorriko, kalentureaz jagok eta.

Atzo irakurri euskun berbaldia neuk egingo joat. Bete neban, horraitino,
Karmeloren eskaria, bertsoa kantatuz.

Hartu egizu Zeruko Aita
Zeure etxean gure MARTIN
Bizi osoa eskaini deustu
Lanean ekin ta ekin
Herria jator maitatzearren
Zenbat neke eta samin
Kristau-taldeak gaurkotu nahian
Ardura ta buruko min
Zorioneko bizi betea
Goza daijala Zurekin
Goza daijala Zurekin.

Egun bi geroago, ikustalditxo bat egitera joan nintxakon Virgen Blanca erietxera eta kantatu neutsan Martini egindako agur-bertsoa, eta Karmelok esan eustan: horixe bai badala doinu ederra! Azaroaren 6an Bizkai Irratitik dei egin eustenean albiste latza emonez eta alkarrizketa labur baterako, behingoan pentsatu neban neure kolkorako: ba, gogoko dozun doinuarekin kantatuko dodaz zure agurreko bertsoak, kantatzeko gauza banaz, behintzat. Eta nonondik heldu jatan adorea, eta holantxe egin neban barru itoz eta bihotz hunkituz. Hiru bertso idatzi nebazan arren, bi kantatu nebazan eta hor dozuz bertso biok, eta baita hirugarrena ere.

*Begiak lauso, bihotza triste,
Heriotzea zeinen itun
Adiskideen azken agurra
Itolarri eta ilun
KARMELO beti izan zaitugu
Maitagarri eta bigun
Apal ta samur hurkotasunez
Abegi ta gozotasun
Maitasun hutsa dogun Jainkoa
Izan bekizu bizilagun
Izan bekizu bizilagun.*

*Alkar maitatzen dogunontzako
Bizitza egunak labur
Lanean eta solasaldian
Alkarrengandik beti hur
Eleizbarruti osoarentzat
Zu bai zerbitzari samur
Gure herria kristau fedeaz
Batzen ekintzaile zuhur
Guztion partez bihotz-bihotzez
Eskerrik asko eta agur
Eskerrik asko eta agur.*

*Baina agurrak ezin dau hautsi
Mende erdiko bidea
Lanordu eta bizikizumen
Sakoneko alkartea
Une atsegin ta garratzetan
Bilatu dogun bakea
Tristura eta haserrealditan
Gizabidez jardutea
Zeruko Aitak zaindu deigula
Maitasunezko katea
Maitasunezko katea!*

Oliadura santua hartu ostean, bere ondoan egozanei esan eutsezan berbak izan bekiguz babes eta adore Jesusen bidetik ibili gura dogun guztioi: «Estoy agradecido a todos vosotros y a toda la gente que me ha ayudado. No creo deber nada a nadie, a no ser mayor cariño, dedicación y entrega. Zuok egin aurrera! Seguid adelante, con la confianza de que Dios siempre nos acompaña en nuestro camino».

Dana dala, ezin dot amaitu berak, hain gogoko izanik, hainbeste abade-
ren hiletetan kantatu izan ebazan «Orixe»ren eta J. M. Lekuonaren ber-
tsoak hemen jarri gabe:

«Orixe»ren *Euskaldunak* poemako 'Amonaren eriotza' atalean:

Zeruan goien Irutasuna
 Jaungoiko aundi ta maite
 Besoak zabal, zuri begira
 Atsegin ederrez daite;
 Ori baizinun mundu onetan
 Izan guzien izaite
 Beso aietan menderen mende
 Zorionez gerta zaite!

Karmeloren moldaketan:

Zeruan goien Irutasuna
 Jaungoiko aundi ta maite
 Besoak zabal, zuri begira
 Atsegin ederrez beite;
 Bera izan zendun mundu honetan
 Izan guztien izate
 Aren besotan menderen mende
 Zorionez bizi zaite.

J. M. Lekuonak:

Gure arteko gertakizunek
 Ezbear asko dakarte,
 Elkar maitatzen degunok ezin
 Bizi gindezke aparte.
 Jainkoa lagun
 Esan dezagun
 Agur! Egun Aundirarte!

Karmelok:

Gure arteko gertakizunak
 Ezbear asko dakarte
 Alkar maitatzen dogunok ezin
 Bizi geintek ez aparte.
 Jainkoa lagun
 Esan dagigun
 Agur! Egun Aundirarte!

Bego Jaunarengan, Jainko gure Aitaren eta gure Ama Eleizearen zerbitzari zintzo eta leiala! Eskerrik asko, Karmelo! Agur, Egun Handirarte!

Karmelo adiskide! Zuk zeure liburua «*Euskerea nire bizitzan*» oparitzean idatzi zeunstana esker onez hemen jasoz burutzen dot nire lantxo hau:

*Lontzo, lehen ikasle ona,
gero lankide nekaezina,
beti adiskide zintzoa,
abade gartsua eta
euskaltzale puntarengoa:
zeuretzat nire hainbeste
urtetako lantxu hau,
esker onez eta maitasunez.*

+ *Karmelo Etxenagusia*
Begoñan, 2003-12-19

Lontzo Zugazaga Martikorena

Begoñan, 2009-04-18an

Begoñan, 2025-03-5ean

